

BIDEZIDOR KIROLEKO
ARGAZKIAK ETA
KRONIKATXOAK 3

Ibaeta-Zuatzu-Aritzeta-Txikiardi-Urbil-Añorga-Lorea

**Senderismoan hanka sartzeak
berekin arduradunak,
baina haserre ez da inor jartzen
denak baitira lagunak.
Gero tortilla eta sagardo
ongi sartzen zaizkigunak,
alaitasuna ematen baitu
ostiraleko jardunak.**

(2015-10-16)

**Iragarleek esan digute
petrala eguraldia!,
baina egunak eman duena
guretzako oparia.
Gizon honekin ikasten dugu
nolako jakinduria!,
Sansinenea nola ireki
giltzarik gabe Audia?**

(2017-09-15)



Añorgako bidegorria

Zarautz (Santa Barbara)-Askizu-Zumaia (2017-09-22)



**Mahats bilketa garaia denez
hor dabilza traktoreak,
eta bidean ikusten dira
sagar gorri dotoreak.
Frontoian, berriz, pilotakadak
hutsez beterik, dorpeak,
saiatu baina pilotariok
ezin asmatu boleak.**



Santa Barbararantz ibiltariak mahastietan barrena Goialdean, Askizu eta inguruak



Askizuko etxe eder baten aurrean



Santa Barbaran, ohiko atsedendian

Igeldo (kanpina)-Orio

<p>Senderismoko ibilaldian ostiralero jarria, aukera dugu ezagutzeko astiro Euskal Herria. Gaurko honetan bero handia sekulako egarria, ba ote dago utzi ez duenik edalontzia garbia?</p>	<p>Gora eta behera ibilaldian taldea dugu sendoa, harriak bistaz galdu gaberik Oriorantz jaitsiz doa. Une batean geldialdia edateko ur tragoa, dakidan batek edango luke gusturago sagardoa.</p>	<p>Bederatziak eta bostean hamaseigarrena hutsa, martxa honetan beteko dugu Igeldoko autobusa. Gizonok gutxi bagara ere hogeita hamasei musa, eguzkiaren izpi hauekin primeran dago gorputza.</p>
--	---	--

2015-08-28

2016-08-26

(2017-09-29)



Igeldoko kanpinaren ondoan, ibiltariok abiatzeko prest



Orioko San Martin basilizaren ondoan, ibilaldiaren bukaeran eta ohiko atsedendian



Hondarribia (kaia)-Higer itsasargia-Hondarribia

**Ekimen honek egin duena
jende guztia elkartu,
horrez gainera denok alaiak
inor ez baita aspertu.
Hondarribiko itsasargia
ondoan zaigu agertu,
hamaiketako gustukoenak
eguna digu edertu.**

(2016-06-24)

**Hondarribiko itsasertzean
jendea gustura oinez,
harkaitzen kontra uhinen aparra
biziki ederra zinez.
Giro ederrak beteko ditu
bazterrak gibelurdinez,
Karmen nafarrak poltsa beterik
mesedez ez jarri minez!**

(2017-10-06)



Higer itsasargiaren aurre-aurrean eguneko partaideak



Hamaiketakoaren ordua bertako tabernan



Jaizkibeleko Itsasbazterreko paisaia, Hondarribi aldean

Tolosa-Alegia-Altzo-Tolosa

**Bi metro eta hogeita zazpi
zuen gizonak luzera,
han zerabilten gizon handia
pailazo baten antzera.
Erregek eta baita erreginak
joan zen bisitatzera,
era honetan atzerri hori
otserri bilakatzen da.**

(2014-11-28)

**Eguzkiari dagokionez
itxuraz udaberria,
Ipintza Zahar gaur hutsik dena
Handiaren baserria.
Metro bat hartuz jakin dezagun
Erraldoiaren neurria,
hogeita zazpi, berrogeita bi
bi metrotik da pasia.**

(2017-10-13)



Altzoko Handiaren ondoan ipotxak dirudigu



Honaino bi metro; hemendik gora...



Goiko argazkian, erraldoia neurtzen eta, behekoan, Altzoko etxe bat

Donostia-Basozabal-Ergobia-Basozabal-donostia (2017-10-20)

**Egun hauetan sumatzen dugu
Kataluinan giro latza,
elkarrizketa eskasa eta
bakea honetan datza.
Marivi zuri opa dizugu
eguna ederto pasa!
Topalekuan jarri digute
tortillan bi kilo gatza.**



Elkarrizketarako une egokiak ibilaldian zehar





Taldea Topalekuan, tortilla gazia eta pasta gozoak jan ondoren



Anoetan, abiadan jartzeko unean

Eskas-Artikutza-Eskas

**Paregabea Artikutzako
oihan eder sorgindua,
naturak hemen esaten dizu
“aparte duzu mundua”.
Leku honetan senda daitezke
gaixoa eta mindua,
polit askoa adar gazteak
eta enborra soildua,
belar goxoa eta orbelak
zapaltzearen soinua.**

2016-06-17

**Trenbidearen historia hori
etorri zaio gogora,
meatzariek eta ikazkinak
izan zuten lan gogorra.
Orain, ordea, iritsi gara
Paradisuaren leihora,
“zuhaitz horiek hau dirudite”
irudimena albora,
udaberria behera badoa
udazkena, aldiz, gora.**

2017-10-27



Artikutzako ostatuaren ondoko taldearen argazkia



Eskasen, abiatzeko unean, eta Anttonen azalpenak (trenbideari buruzkoak) entzuten



Zestoa-Iraeta-Ibañarrieta-Arroa Goikoa-Iraeta-Zestoa (2017-11-03)



Zestoako Gurutze aitona-amonen aterpearen ondoan eta Ibañarrietan atseden laburra





Zein gustura hartzen dituen jendeak atsedenaldi labur hauek!!!

**Aldapa gora sartuko gara
artistaren ametsetan,
inspirazio bila zebilen
inguruko mendietan.
Zergatik jarri ote zituen
ilusioak metetan?,
ibiltariok esan diogu
eskerrik asko benetan!**

**Nola bihurtzen den gizakia
bihozbera zaharretan,
batek gustura hartuko luke
haurtxoren bat besoetan.
Denak politak hunkigarriak
berezi ote hauetan?
azal beltzeko aingerutxo
ederra ederrenetan.**

Deba-Kalbarixoa-Olatz auzoa-Mutriku (2017-11-10)



Olatz auzoko jabetxearen atarian, serioak eta barrez (hanka tarteko jostailua aipaturik)





Olatz auzoko jatetxean Helduen Hitzari buruzko habanera abesten

(1)

**Gora-behera zuhaitz artean
mendizaleen langintza,
gaurko honetan euri mehatxuz
Kalbarixoan gabiltza.
“Eguerdirako etor zaitezte”
jarri digute baldintza,
ordu onean irits gaitezen
Mariajek omen giltza.**

(3)

**Geologian eta Artean
hemen badugu maisua,
ez da isiltzen sekula santan
bera baita berritsua.
Azalpenetan erakusten du
betiko era sutsua,
alde batetik gerlari samar
baina giza baketsua.**

(2)

**Tortilla eta ogi goxoa
bi lagunek salda bero,
abestiekin jarraitu dugu
hauek irentsi eta gero.
Ondorengoa jatetxetik at
inork ez zuen espero,
Geologiaz hitz egin digu
eta guk horretaz zero.**

(4)

**Leturiondo gure gizonak
zenbat dakien arteaz,
hemen inortxo ez da aspertzen
ikasgaiak jasotzeaz.
Bazkalondoan berdindu samar
janari eta kafeaz,
ibilñatarion txalo beroak
har itzazu umoreaz.**

Hirurogeita hamabost lagun
bidegorrian gabiltza,
bazkariaren kontua ote
arrakasta honen giltza?
Tripa beterik nola bazuen
mundu guztiak zer mintza,
gupida gabe kendu diote
batak besteari hitza.

(2015-10-30)

Arditurri Fuenteovejuna
gauza berbera ote da?,
horrela bada ibiltariok
goazen denok batera.
Garai batean jende xumeak
erabiliz esaera,
ezin hobeki azaldu zuen
herri baten pentsaera.

(2016-11-25)

Arditurriko bidegorriak
atzeman gaitu obretan,
arrisku handiz ibili gara
errepide bazterretan.
Txilibituak agertu dira
sarritan gure ezpainetan,
artalde gisa hartu gaituzte
baina hainbat koloretan.

(2017-11-17)

Gaurko mintzagai osasuna da
nola gabiltzan gustura,
“zorioneko gizaki gara”
etorri zaigu burura.
Egun batean hau gogoratuz
esanez “hura freskura,
garai ederrak pasa ditugu
bazter dezagun tristura”.

(2017-11-17)

Erromatarrak meategian
duela bi mila urte,
gogo-gogotik aritu ziren
guztia agortu arte.
Agintariek morroi gaixoei
gurdiak zilarrez bete!,
abian jarri Oiaso alderantz
helmuga hantxe baitute!

(2016-11-25)

Garraibide honetan zehar
giro ona nabarmena,
berriketa bai baina jendeak
Tolaren du nahi duena.
Bide gorria utzi ondoren
datorkigu atsedena,
horrez gainera sagardo eta
janarien gozamina.

(2016-11-25)

Gosaldu eta Ramon, Arruti
hauek bai gizon argiak,
gure buruan sartu dituzte
dakizkiten historiak.
Geroagoxe bertan ditugu
eder asko ur-jauziak,
naturazaleok esan diogu
“Mentxu, atera argazkiak”!

(2017-11-17)

Ba al da gauza ederragorik
jendea pozik-irrika?
abantailatu senti gaitzke
ongi pentsatzen jarrita.
Hirurogeitik gora guztiok
hau ez badugu polita!
goza ditzagun une guztiak
etorkizuna gaur baita.

(2017-11-17)



Talde osoa bidegorrian eta Arditurriko erreka zeharkatzen



Arditurriko erreka gurutzatzen eta Tolare jatetxeko une bat



Anoeta-Hernalde-Alkiza-Anoeta (2017-11-24)

<p>Alkizarako aldapa honetan astindu behar hauspoak, mendi artean (behe) lainoa paisaiak eder askoak. Bat, bi, hiru, lau, ... zazpi baziren muino gainean astoak, pentsatu zuten hamasei hauek ote gure antzekoak?</p>	<p>Baso ederrak, zoragarriak baditu Euskal Herriak, Alkiza honek aurrean ditu kolore ikusgarriak. Ibiltarioi ase dizkigu bakearen egarriak, paisaia hauek gaixoarentzat beti kontsolagarriak.</p>	<p>Hona iritsi eta ezin jakin zer genuen gosaltzeko, misterioak hamaikatzotan jaio omen gara ikusteko. Ostalariari: “ jar iezaguzu zerbait gosea kentzeko”, tripazorroak beti behar du erregai ibiltzeko.</p>
--	--	--

(2015-11-27)

(2016-11-18)

(2017-11-24)



Ibilbidearen ia bukaeran, Anoetarantz jaisten



Alkizako Herri Ostatuan sartzeko prest eta bideko enbor sorgindu eroria



Ormaiztegi-Lierni-Mutiloa-Lierni-Ormaiztegi (2017-12-01)

**Behe-lainoak esnegain antza
begi aurrean Aizkorri,
berdegunetik ibiltariok
Liernira gara etorri.
Eguraldia fresko samarra
lurra pinu hostoz gorri,
Marivik omen urtebetetze
zorionak andre horri.**

(2016-10-21)

**Mendi tontorrak elurrez bete
eta laranja alerta,
ibiltariok etxean gara
ezertxo ez dadin gerta.
Tren geltokian azaldu dira
Faustino eta Alberta,
“ezin zarete mendira joan
itxura txarra du eta”.**

(2017-12-01)

Besabi-Mulisko gaina-Besabi-Urnieta (2017-12-15)

**Euria lagun egun osoan
eta lokatza orpoan,
leku honetan ikus daiteke
urki ugari basoan.
Burdin arotik brontze arora
ibili gara gaurkoan,
mairu baratzak, trikuharriak
iraun dute luzaroan.**



Mendi muino batean, Besabiko bidean



Besabin, abiatzeko prest



Mulisko gainaren bidean

Pasai Donibane-Jaizkibel-Hondarribia (2017-12-22)



Barahonako olerkariari entzuten, txakur bati buruzko olerkia

**Ibilaldian ikusi dena
ez da gertatzen sarritan,
txakur txiki bat hurbildu zaigu
Jaizkibel mendiko pistan.
“Aurelio” omen bere izena
jaikin baitugu berritan,
aurretik doa erakutsirik
trebe dela gidaritzan. (9+9)**

**Lepokodunak harritzekoa
ez zuela nagusirik,
ez dugu uste han zebilenik
inolaz ere galdurik.
Zekusanean ez ginela prest
emateko janaririk,
bikote baten atzetik joanda
utzi gintuen azkenik.**



Txakurrari, bat edo batek, "Aurelio" izena ezarri zion




Endrike olerkia irakurtzen ibilbidearen erdian

Besabi-Mulisko Gaina-Urnieta (2017-12-15)



Mulisko Gainekotiko paisaia



Planoan ezartzen duen bezala: Onyi-Mandoegi mendietako estazio megalotikoa



Mendi muino batera igotzen, trikuharria oinetan dugula

